



Hegats Igeriketako TXAPELKETA NAZIONALA

BARNE ARAUTEGIA

1.- ANTOLAKUNTZA: Antolakuntza Nafarroako Urpeko Ihardueren Federakuntza (hemendik aurrera F.N.D.A.S.) eta Euskadiko Urpeko Ihardueren Federakuntzen (hemendik Aurrera E.H.U.I.F) artean partekatua izango da. Lehiaketaren antolakuntzaren arduradunak izango dira. Horretarako, federakuntza bakoitzeko Epaile Batzordeei lehiaketaren kontrolerako dagokion epaimahaia osatzea eskatuko diete.

2.- JARDUNALDIAK, TOKIAK ETA FROGAK: Nafarroako eta Euskadiko Federakuntzen web orrialdetan eskuragarri egongo den egutegia sortuko da. Bertan, tokia, data, lehiaketa mota (irekia edo itxia) eta lehiaketako frogen ordena zehaztuko dira.

3.- PARTAIDETZA:

- ✓ Federazio (FEDAS) lizentzia indarrean daukaten igerilariei guztiei irekia izango da.
- ✓ **Ireki** bezala izendatutako lehiaketetan, beste federakutzetako eta federazio (FEDAS) lizentzia indarrean daukaten igerilariak parte hartu ahal izango dute, beti ere gehienez 8 gizonezko eta 8 emakumezko.
- ✓ Igerilari bakoitzak gehienez, banakako **bi** frogetan eta errelebo **batean** parte hartu dezake.
- ✓ Taldeek 25, 50, 100 eta 200 metrotako frogetan parte hartzaile kopurua zehaztu gabe daukate.
- ✓ 400mtako frogetan, talde bakoitzak gehienez 18 igerilari (neska eta mutilak batuta) aurkeztu ditzake.
- ✓ 800 eta 1500mtako frogetan, talde bakoitzak gehienez 12 igerilari (neska eta mutilak batuta) aurkeztu ditzake.
- ✓ Talde bakoitzak emakumezko zein gizonezko errelebo talde **bakarra** aurkeztu dezake.

4.- MAILAK: Sexu bakoitzarentzat maila bakarra egongo da: **ABSOLUTUA**.

Jardunaldi hauetan, partaidetza **2008. urtean** edo aurrekoetan jaiotako igerilariei mugatua egongo da. Muga hau **antolatzen duen erkidegoko** igerilariei ez zaie egokituko.

Igerilari infantilek, maila horretako Espainiako Txapelketan parte hartu dezaketen froga berdinetan bakarrik igeri egin ahalko dute; beraz **ez dituzte** ez ur azaleko 1500 eta 800m, **ez** murgilaldiko frogarik, **ez eta** apneako 50 metroak lehiatuko. 50m apnea dagoenean, 25m apneako froga egongo da beraientzat.

5.- IZEN EMATEA: Izen emate orria, Urpeko Jardueren, Nafarroa eta Euskadiko Federakuntzen web orrialdeetako formularioko ataletan egongo da eskuragarri.

Orrialdea, dagokion moduan betea bidali beharko da. Igerilariren batek frogaren batean denborarik izango ez balu, denborari dagokion atala zurian utziko da.

Izen emate orriak, frogak lehiatuko diren aurreko asteazkeneko 20:00h baino lehen bidali beharko zaizkio antolatzen duen federakuntzari.

Erreleboetako orriak, jardunaldiko idazkaritza mahaian jasoko dira eta lehiaketa amaitu baino 5 serie lehenago egoki beteta eman beharko dira.

6.- SERIEEN OSAKETA: 50 edo 25 metrotako igerilekuan lorturiko denboren arabera Erlojuaren Kontrako Serieak izango dira.

7.- AGIRIEN BANAKETA (SERIEAK): Agirien banaketak beroketaren hasieran egingo da. Korreo elektroniko bidez bidaliko dira eta frogen aurreko ostiralean argitaratuko da web orrialdeetan.

8.- BAJAK: Igerilarien bajak beroketaren hasieran jakinaraziko dira.



9.- BEROKETA: 50 minututako beroketa egongo da, lehiaketako haserako ordua baino ordu bete lehenago hasita. Talde antolatzaileak beroketa kaleak izendatuko ditu.

10.- EMAITZAK ETA TXAPELKETARI ERREKLAMAZIOAK: Emaitzak egin ondoren, korreo elektroniko bidez bidaliko zaizkio parte hartu duen talde bakoitzari gainbegiratzeko. Hiru egunetako epea egongo da dagozkion zuzenketak egiteko.

Epe hau pasa ondoren, aldaketarik egongo balitz berriro gainbegiratzeko bidaliko dira eta 24 ordutako epean erreklamazio gehiago egongo ez balitz, FEDASera bidaliko dira ranking nazionalan sartzeko. Gainera, dagokien web orrialdetan argitaratuko dira.

11.- AURREIKUSI GABEKO ARAUAK: Arautegi honetan jasotzen ez den beste guztirako FEDASEk onartutako C.M.A.S. Hegats Igeriketako Nazioarteko Arautegiak dionari so egingo zaio.

Donostia, 2019ko azaroaren 28an.



Fdo. Gorka Merino
Euskadiko H.I. Batzordeko
Lehendakaria



Fdo. Garikoitz Goikoetxea
Nafarroako H.I. Batzordeko
Lehendakaria

PUNTUAKETA ARAUTEGIA

2019-2020 Hegats Igeriketako Txapelketa Nazionaleko puntuaketa arauak, jarraian azaltzen direnak izango dira:

- 1.- Lizentzia indarrean duen eta H.I. Txapelketa Nazionalean eta Luis Salaberriaren Omenezkoan parte hartzen duen igerilari orok puntuatuko du.
- 2.- Bi sailkapen egongo dira: gizonezkoena eta emakumezkoena.
- 3.- Puntuak, 2019ko irailaren 30eko maila desberdinetako Espainiako errekorren arabera eta jarraian azaltzen den formularen arabera banatuko dira:

$$\frac{\text{Espainiako Errekorra}}{\text{Lorturiko Denbora}} \times 1000$$

- 4.- Jardunaldi bakoitzean indibidualki lorturiko puntuaketak batuko dira.
- 5.- Jardunaldi bakoitzeko emaitzak egiaztatu ondoren, jardunaldiko puntuaketa eta sailkapenak argitaratuko dira. Ala nola, jardunaldi desberdinetako puntuen baturarekin sailkapen orokorra ere argitaratuko da.
- 6.- Ligako amaierako puntuaketa, sei jardunaldi hoberenen puntuen batuketarekin lortuko da eta gainera igerilariren batek, jarraian azaltzen diren uztezkotako bat bete ezker, azaltzen diren puntuak gehituko zaizkio:
 - a) 1. Ustezkoa: 200 puntu Ligako 7 jardunaldietatik 6etan parte hartzen duen igerilariari. Eta 550 puntu gehiago 7 jardunaldietan parte hartzen duen igerilariari.
 - b) 2. Ustezkoa: 250 puntu jardunaldi guztietan zehar 50, 100, 200, 400 eta 800 metrotako distantzien artean 4etan parte hartzen duen igerilariari eta 500 puntu gehiago 5 distantzietan parte hartzen duenari. Igerilari infantilen kasuan, 250 puntu 25 apnea, 50, 100, 200 eta 400 distantzien artean 4etan parte hartzen duen igerilariari eta 500 puntu gehiago 5 distantzietan parte hartzen duenari.